

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

4052

EBAZPENA, 2024ko uztailaren 26koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Azpeitiko (Gipuzkoa) «1. Alde Zaharra» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa.

AURREKARIAK

2024ko apirilaren 25ean, Azpeitiko Udalak eskabidea aurkeztu zuen Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzan, Azpeitiko «1. Alde Zaharra» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko. Eskabidearekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu ziren, hala nola Planaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 29. artikuluetan xedatutako edukiarekin.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikulua aplikatuta, 2024ko maiatzaren 28an, Euskadiko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzak kontsulta-izapidea egin zien ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei; jasotako erantzunen emaitzak espedientean bildu dira. Era berean, Azpeitiko Udalari jakinarazi zitzaion hasiera eman zitzaiola prozedurari.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren orduko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesdun orok aukera izan zezan ingurumenaren arloan egoki iritzitako oharra egiteko.

Legezko erantzun-epea amaituta, eta espedientean jasotako dokumentazio teknikoa aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-txosten estrategikoa egiteko behar beste judizio-elementu, bat etorri abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75. artikuluekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluari jarraituz, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mende jarriko dira, nahitaez, ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuak, eta haien aldaketak eta berrikuspenak, ingurumenaren babes-maila handia bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko.

Azpeitiko «1. Alde Zaharra» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72.2 artikuluan jasotako kasuen artean sartzen da; hor ezartzen da zer plan eta programak pasatu behar duen ingurumen-organoak egindako ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua, hauek zehazteko: ingurumen-eragin nabarmenik ez duela –ingurumen-txosten estrategikoaren arabera– edo ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar dela, ingurumenean eragin nabarmena izan dezakeelako.

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko prozedura 75. artikuluan arautzen da, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.C eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Planaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta ingurumen-dokumentu estrategikoa zuzena dela eta indarreko

araudian ezarritako alderdien arabera dela, ingurumen-txosten estrategiko hau eman du Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, Planak ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzakeen edo ez aztertzei eta, ondorioz, zehazteko ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen, edo, bestela, Plana zer baldintzatan garatu behar den ingurumena behar bezala babesteko. Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza horretarako organo eskuduna da, hala ezarrita baitago dekretu hauetan: 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; eta 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Azpeitiko «1. Alde Zaharra» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziari (aurrerantzean, Plana) buruzko ingurumen-txosten estrategikoa formulatzea, ondoren adierazten den moduan:

A) Planaren deskribapena: helburuak eta jarduketak.

Plan Berezia Azpeitian indarrean dagoen HAPOa garatzeko sustatzen da (2013ko azaroan onartu zen behin betiko), «1. Alde Zaharra» eremurako (94.704 m²) ezarritako hirigintza-araubidea egokitzeko, honako gai hauei dagokienez:

– Eraikinetako estalkipeko solairuan etxebizitza independenteak gaitzea eta ezartzea, betiere horretarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen badira, bizigarritasunari, irisgarritasunari eta abarri dagozkienak barne, arlo horretan indarrean dauden legezko xedapenetan eta hirigintza-plangintzan ezarritako baldintzetan, baita Plan Berezi honetan ere.

– Ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan ezarritako etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak aplikatzea, 10. artikuluko aurreikuspenekin bat datozen salbuespenak barne, eremuko hiri-morfologia bereziarekin (lurzatiak, eraikinak...) lotutako baldintzatzaileek justifikatuta.

– Bizitegi-eraikin horien fatxadetan hegala gaitzea eta ezartzea, kontuan hartuta, besteak beste, kaleen edo espazio publikoen zabaleren edo sekzioen ondoriozko baldintzak.

– Eraikin horietan dauden etxebizitzak zatitzea edo bereiztea, eta irisgarritasun-baldintzak betetzea, aldez aurretik igogailuak ezartzearen baldintzapean.

– Eremuko bizitegi-eraikinen estalkietan terrazak gaitzea, haien baldintzak kontuan hartuta.

– Goiko kaleko 2, 4, 6 eta 8 zenbakietako lurzatien hirigintza-araubidea doitzea edo argitzea; horretarako, indarrean dagoen plangintzak kale horren aurrealdeko beheko solairuan aurreikusten duen erabilera publikoko ataripea kentzea.

Indarrean dagoen HAPOak «1. Alde Zaharra» eremuko lursailak hiri-lurzoru gisa sailkatzen ditu, eta hirigintza-kategorizazioarekin lotutako aurreikuspenak zehazten ditu. Testuinguru horretan, Plan Bereziak aurreikuspen horiek finkatzen ditu. Salbuespen bakarrak hiri-lurzoru finkatugabe gisa kategorizatzeari eragiten dio, eremuko bizitegi-lurzatien eraikigarritasuna handitzea dela-eta, baldin eta estalkipeko solairuetan jarduketak egiten badira eta jarduketa horien ondorioz gaur egun dauden bizitegirako ez diren erabilerak (trastelekuak...) Planak baimendutako bizitegi-erabilerekin ordeztzen badira.

«1. Alde Zaharra» eremuan planteatutako proposamenak garatzeko eta gauzatzeko, kasuan kasuko eraikuntza-proiektua formulatu beharko da.

B) Proposatutako Planaren ezaugarriak aztertu ondoren, eta abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.3 artikuluekin bat etorritz, lege horren II.C eranskinean ezarritako irizpideak aztertu dira; hain zuzen ere, planak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta behar duen ala ez zehazteko.

1.– Planaren ezaugarriak, bereziki alderdi hauek aintzat hartuta:

a) Planak zenbateraino ezartzen duen proiektuetarako esparru bat: aurkeztutako dokumentazioaren arabera, planak ez dauka baldintzatzailerik, besteak beste, kokapenari, ezaugarriari, neurriari edo funtzionamenduari dagokienez, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko legeetan zerrendatutako kategoriaren batekoak diren proiektuak etorkizunean baimentzeko.

b) Planak zenbateraino eragiten duen beste plan edo programa batzuetan, bai eta hierarkizatuta daudenetan ere: Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean «1. Alde Zaharra» eremurako (94.704 m²) ezarritako hirigintza-araubidea berregokitzen du Planak. Planak, bere ezaugarriak kontuan hartuta, ez du ingurumen-eragin nabarmenik izango beste plan edo programa batzuetan. Ez da aurkitu bateraezintasunik hierarkikoki nagusia den plangintzarekiko.

c) Plana egokia ote den ingurumen-arloan garapen jasangarria sustatzeko kontuan hartu behar diren alderdiak barnean hartzeko: Plana egokia da garapen jasangarria sustatzeko kontuan hartu behar diren alderdiak barnean hartzeko. Hain zuzen ere, energia-aurrezpena eta -efizientzia bultzatzeko neurriak sar daitezke planean.

d) Planari loturiko ingurumen-arazo adierazgarriak: ez da hauteman plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-arazo adierazgarririk, baldin eta, betiere, arlo hauetan indarrean dagoen araudia betez gauzatzen badira ukitutako eremuarekin lotutako jarduketak eta jarduerak, besteak beste: kultura-ondarea, urak, uholde-arriskua, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, zarata, hondakinak, isurketak, segurtasuna, osasuna eta ingurumena.

e) Era berean, Plana egokitzat jotzen da Europar Batasuneko eta Espainiako ingurumen-arloko legeria ezartzeko.

2.– Ondorioen eta ziur asko eraginpean egongo den eremuaren ezaugarriak:

Eragindako eremua Azpeitiko udal-mugarteko hirigunean dago. Eremu laua, urbanizatua eta erabat artifizializatua da, eta 94.704 m²-ko azalera du.

Eremua antropizatuta dagoenez, oro har, ez dago inolako natura-elementu garrantzitsurik, Urola ibaia izan ezik –eremua hego-mendebaldetik ipar-ekialdera zeharkatzen du–. Eremuan ez dago naturagune babesturik, bestelako intereseko naturagunerik, interes geologikoko tokirik edo EAEko korridore ekologikoen sareko elementurik.

Hauek dira eremuaren ingurumen-ezaugarri nagusiak:

Eremua Urola ibaiaren alubioi-lautadan dago. Urola ibaiaren tarte horretan, eskuineko ertzean, Ibaieder ibaia isurtzen da. Eremua Urolaren Unitate Hidrologikoaren barnean dago, eta unitate hori, aldiz, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan. Ia eremu osoa Urola-D ur-masaren isuri-arroan sartzen da, hegoaldeko mugako gutxieneko azalera bat izan ezik; hori Ibaieder-B ur-masarekin bat dator.

Lurpeko hidrologiari dagokionez, eremua Izarraitz lurpeko ur-masaren eta Iparraldeko Antiklinorioko Kuaternarioko Izarraitz sektorearen gainean dago.

Eremuan dagoen landaredia lorategi-eremuetara eta espezie apaingarrietara mugatzen da. Ez da identifikatu Batasunaren intereseko habitatik edo mehatxatutako flora-espezierik.

Eremuko fauna hiri-eremuetako berezko espezieek osatzen dute; ez da fauna-espezie mehatxaturik identifikatu. Nolanahi ere, adierazi behar da Ibaieder ibaia –eremuaren hegoaldeko muga itsasoratzen da, Urola ibaian– bisoi europarrarentzako intereseko eremu gisa identifikatzen dela, Gipuzkoako Lurralde Historikoan espezie hori kudeatzeko planaren arabera –2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) bisoi europarra kudeatzeko plana onartzen duena; 2004ko maiatzaren 28ko GAO–.

Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroaren arabera, Urola eta Ibaieder ibaiak «hornidura-harguneak dituzten masa» gisa identifikatzen dira, eta Ibaieder ibaia, interes ekonomikoko espezieak (ziprinidoak) babesteko tarte gisa.

Eremuan kultura-ondare arkitektoniko eta arkeologikoko elementu babestuak daude. Ondare arkitektonikoari dagokionez, hauek dira EAEko monumentu gisa aitortutako ondasun higiezinak: Antxieta jauregia, Basozabal jauregia, Soreasuko Sebastian Deunaren eliza, Eliz kalea 1 etxea, Altuna etxea eta Enparan etxea. Udal-babeseko ondasun higiezinak hauek dira: Enparan 4 etxea, Enparantza Nagusia 6-7-8-9 etxea, Korrejidorearen etxea, Erdikale 23 etxea, Eliz kalea 21 etxea, Erdikale 20 etxea, Enparantza 2-3 / Enparan 2, Julian Elorza zubia eta parroikia-etxea. Gainera, eremuan hainbat ondasun higiezin daude EAEko monumentu izendatzeko proposatuta: udaletxe zaharra, Abitain garbategia, udaletxea eta Enparan zubia. Ondare arkeologikoari dagokionez, hirigune historikoa monumentu-multzo izendatuta dago. Gainera, balizko arkeologia gune batzuk hauteman dira: Enparan dorretxea, San Domingo komentua, Santa Kruz baseliza (ageriko egiturarik gabe) eta San Martin Bustinzuri ospitalea. Bestalde, San Agustin komentua EAEko monumentu izendatzeko proposatutako eremu arkeologikoa da.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, akuiferoak kutsatzeko arrisku handia du eremuak, eta interes hidrogeologikoko eremu bat da.

Urola ibaia hurbil dagoenez, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuak eragiten dio batez ere eremuari. Urola ibaia, eremutik igarotzean, uholde-arrisku potentzial esanguratsua duen eremu gisa identifikatzen da (ES017-GIP-URO-02 Azpeitia UAHE).

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan jasota dauden sei lurzati daude eremuan (20018-00007, 20018-00008, 20018-00009, 20018-00014, 20018-00023, 20018-00026).

Azkenik, salgai arriskutsuen garraioari lotutako arrisku teknologikoak kontuan hartuta, lurzatia GI-631 errepidearen 600 metroko afekzio-bandan sartzen da. Arrisku txikikotzat jotzen da hori.

Zaratari dagokionez, udalerriko zarata-maparen arabera (Azpeitiko Udalaren 2014ko urriaren 7ko Ebazpenaren bidez onartu zen behin betiko), zarata-foku nagusia kaleetako ibilgailuen zirkulazioa da. Maparen arabera, eremuan zarata-mailak, oro har, 60 dB-etik beherakoak dira egunez eta arratsalde, eta 50 dB-etik beherakoak, berriz, gauez. Horri dagokionez, ingurumen-dokumentu estrategikoak justifikatzen du ez dela beharrezkoa Plan Bereziaren inpaktu akustikoaren azterketa egitea, Planak ez dakarrelako inolako hirigintza-garapenik, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 3.d artikuluan jasotako definizioaren arabera.

Inpaktu nagusiak egungo eraikinen eraispén-eta eraikuntza-obrek eragindakoak izango dira. Ekintza horien ondorioz, hondakinak sortuko dira, makinen joan-etorriak egongo dira, isurketak eta zaratak egongo dira, besteak beste, eta horrek eragina izan dezake azaleko uretan (kasu honetan, zeharkako afekzioak gerta daitezke euri-urak biltzeko sistemen bidez), lurpekoetan eta lurzoruetan isurketengatik, eragozpenak sortuko dira eremuan eta inguruetan bizi diren biztanleengan, emisio atmosferiko eta akustikoengatik, eta abar.

Jarduketek eragina izan dezakete kultura-ondareko elementuetan eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan; beraz, garapenak arloko araudia bete beharko dute, ingurumen-dokumentu estrategikoan adierazten den bezala. Gainera, kontuan izan behar da eremua uholde-arriskuko eremuan dagoela; beraz, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan eta Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean uholde-arriskua duten eremuen mugei buruz xedatutakoa beteko da.

Ingurumen-efektuen balorazioa indarrean dagoen plangintzan aurreikusitako egoeraren arabera egin behar da. Proposatzen diren jarduketak eta horien ondoriozko eraginak mugatuak direnez, uste da eragin horiek txikiak izango direla, eta, oro har, aldi baterakoak eta itzulgarriak izango direla, betiere indarrean dagoen legeria betetzen bada, batez ere zaratari, hondakinei eta isurketei buruzkoa, eta obrak horrelako jardueretarako jardunbide egokiak betez egiten badira.

Hori dela eta, ingurumen-dokumentu estrategikoak planteatzen dituen zuzenketa-neurriak eta jasangarritasunaren aldekoak aplikatuta, eta aurrerago zehazten diren prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurriak ere aplikatuta, ez da espero jarduketek ingurumenean inpaktu adierazgarririk izango dutenik, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoari jarraikiz, baldin eta eragin-eremuan egiten diren esku-hartzeak eta jarduketak gauzatzen badira, besteak beste, uholde-arrisku, kultura-ondare, ur, zarata, hondakin, isurketa, segurtasun, osasun eta ingurumenari dagokienez indarrean dagoen araudia betez.

3.– Ebazpen honetan, Azpeitiko «1. Alde Zaharra» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezian sartu beharreko babes- eta zuzenketa-neurri hauek ezartzen dira, ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izan ez dezan eta ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar izan ez dadin.

Babes- eta zuzenketa-neurriak indarreko araudiaren arabera gauzatuko dira, Ebazpen honetan adierazitakoaren arabera, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, Ingurumen Agiri Estrategikoan eta Plan Berezian bertan jasotakoaren arabera, eta ez dituzte eragotziko Plana onartzeko prozeduran eskumena duten beste erakunde batzuek ezarri ditzaketanak. Hauek dira neurri horiek, besteak beste:

Kultura-ondareari dagozkion neurriak.

Oro har, Planaren ondoriozko jarduketek kultura-ondarearen arloan indarrean dagoen legeria bete beharko dute:

– Azpeitiko hirigune historikoaren ondare arkeologikoa erdi mailako monumentu-multzo gisa babestuta dago; beraz, Alde Zaharraren eremuan esku-hartzeak egiten direnean, Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa Babesteko Aginduan ezarritakoa beteko da.

– Monumentu izendatutako eraikinetan egiten diren jarduketek monumentutzat jotzen dituen dekretuaren babes-arauetan ezarritakoa bete beharko dute.

– Hirigune historikoko elementu arkitektonikoak eta ondare arkeologikoa hirigintza-plangintzak babesten ditu, Udal Katalogoaren bidez; beraz, Alde Zaharraren eremuan egiten diren jarduketek aipatutako katalogoan ezarritako araudia bete beharko dute.

Era berean, espedientean jasota dagoen Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostenean jasotako gomendioak Planean sartzeko aukera aztertu beharko da. Zehazki, hauek dira Planari aplikatzen zaizkion gomendio espezifikoak:

– Teilatupeko solairuan etxebizitza independenteak ezartzeari dagokionez, gomendatzen da horrelako esku-hartzeak saihestea, eraikin gehienek ezaugarriak kontuan hartuta, eta teilatu multzoaren irudi espezifikoa eraldatuko litzatekeela eta horrek hirigune historikoaren ondare-balioetan eragin negatiboa izango lukeela ikusita. Nolanahi ere, gomendatzen da lehendik dauden eraikinen teilatu-hegal eta gailurren altuerari eustea.

– Bestalde, txapitula gaitzeak eraikinen ondare-balio arkitektonikoan izan dezakeen eragina kontuan hartuta, gomendatzen da Kultura Ondarearen Zuzendaritzak hirigune historikoak babesteko ezartzen duen irizpidera egokitzea, eta ez da horrelako espaziorik baimenduko.

– Estalkietan terrazak egokitzeari dagokionez, gomendatzen da estalki lauak ez gaitzea, hartara errespetatzeko hirigune historikoko eraikinen berezko teilatuaren morfologia eta mantentzeko jatorrizko estalkien irudia.

– 80/2022 Dekretuaren bizigarritasun-baldintzen aplikazio orokorrari dagokionez, gomendatzen da hirigune historikoaren eremu osoa 80/2022 Dekretua aplikatetik salbuetsita egotea, jarduketa mota edozein dela ere (birgaitze integrala, obra berria, indarrean dagoen plangintzak finkatua, baita ordezkatzekoa ere).

– Fatxadetan hegala egokitzeari eta ezartzeari dagokionez, gomendatzen da hirigunearen adierazgarri diren erreferentziazko eraikinen hegala tipologia eta ezaugarriak aztertzea eta Alde Zaharraren ondare-balioarekin bat datozen irizpideak garatzea. Hegalen sakonerari dagokionez, gomendatzen da parametro orekatuagoak definitzea, eta erreferentziazko eraikinekin harmonian dauden formak garatzea.

– Gomendatzen da goiko solairuetako fatxada-lerroan atzeraemangunerik ez egitea; izan ere, kontraesana dago malda duen jatorrizko estalkiaren morfologiarekin eta eragina du eraikinen balioetan.

– Etxebizitzak banantzeari edo zatitzeari dagokionez, gomendatzen da ez egitea, baldin eta ondare-balioa hondatzea badakar.

– Irisgarritasunari dagokionez, gomendatzen da estalkien gainean instalazio tekniko bolumenik (igogailua, besteak beste) ez jartzea.

Uholde-arriskuak murriztera bideratutako neurriak.

– Planetik eratortzen diren jarduketek bat etorri beharko dute Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoak (2022-2027) uholde-arriskua duten eremuak kudeatzeko ematen dituen irizpideekin (urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuak onartu zuen plan hidrologiko hori, Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceuta, Melilla, Segura eta Júcarreko eta Kantauri Ekialde, Miño-Sil, Duero, Tajo, Gadianako mugape hidrografikoetako espainiar alderdiko eta Ebroko plan hidrologikoen berrikuspene onartzekoak); era berean, kontuan hartuko

da Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren E.2 apartatuko uholdeen aurkako babesari buruzko berariazko araudia.

Jabari publiko hidraulikoa eta ingurune hidrikoa babesteko neurriak.

– Urola ibaiaren aurreko fatxadetan, hegalek ibaiaren ibilguen zortasun-eremua eta jabari publiko hidraulikoa errespetatu beharko dituzte.

– «1.1» azpieremuan (Goiko kalea 1, 5, 7 eta 13 –Acilona–), eraikinak Urola ibaiaren ibilguarekiko izango duen gutxieneko atzerapena 10 metrokoa izango da, eta atzerapen hori bete beharko da.

– Uholde-arriskuari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren 42. eta 45. artikulua bete beharko dira.

– Jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo haren babes-eremuetan (zortasun- eta zaintza-eremua) kokatzen den jarduera orotan Uraren Euskal Agentziaren nahitaezko baimena beharko da.

Beste prebentzio- eta zuzenketa-neurri batzuk:

Aurreko neurriak eragotzi gabe, garapen-proiektuak gauzatzean aplikatu beharreko neurriak lotuta egongo dira obrak egiteari, lurra eta soberakinak kudeatzeari, hondakinak sortu eta kudeatzeari, hondeatutako lurzoruak kontrolatzeari, eta urak, airearen kalitatea eta kalitate akustikoa babesteari buruzko jardunbide egokien eskuliburuarekin. Besteak beste, neurri hauek hartu beharko dira, eta Planak azkenik ezartzen dituen zehaztapenetan txertatu:

– Obrako langileek erabiltzeko jardunbide egokien eskuliburua. Gai hauei lotutako alderdiak bilduko ditu, gutxienez: lanaldiak, makineria, uretara ezer isurtzea saihestea, ahalik eta hauts eta zarata gutxien sortzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa duten jarduerak minimizatzea, hondakinak kudeatzea eta abar.

– Obrak, bai eta lurzoruak erabiltzea eragiten duten eragiketa osagarriak ere, proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatuko dira. Kontratistaren instalazio-eremuak (barne hartuta makinak gordetzeko guneak, obra-txabolak, landare-lurra eta obrako materialak eta hondakinak aldi batean pilatzeko guneak) ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko irizpideei jarraikiz proiektatuko dira. Ahal den neurrian, uholde-arriskua duten eremuak saihestuko dira.

– Hondakinak sortu eta kudeatzea: Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak xedatutakoaren arabera eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutakoaren arabera kudeatuko dira obretan sortutako hondakinak, hondeaketetatik eratorritakoak barne.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira, hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzea beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barnean dela.

Hondakinak ezabatzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik behar bezala justifikatzea haien balorizazioa ez dela bideragarria teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik.

Olio erabiliak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatu beharko dira.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta isurketaren baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu

badezakete. Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezen. Aipatutako edukiontzien edo ontzien era argian, irakurgarrian eta ezabaezinean etiketatuta egon beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Eremu jakin bat egokituko da behin-behineko hondakin arriskutsuak pilatzeko; besteak beste, olio-potoak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar. Gainera, hondakin geldoak biltzeko edukiontzi espezifikoak jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita. Era berean, lanek irauten duten bitartean, sortzen diren hondakinak biltzeko gailu estankokoak (bidoiak, etab.) jarriko dira lanak egiteko eremu osoan. Motaren arabera bereiziko dira hondakinak, eta, ondoren, aldi baterako biltegitratuko dira aipatutako garbigunean.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak jarriko dira, aipatutako nahasketa horiek ekiditeko.

Olio erabiliak, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean biltegitratuko dira behar bezala etiketatutako depositu estankoetan; zolata iragazgaitz baten gainean egon beharko dute, kubo txikietan edo ihes eta isuri posibleei eusteko sistemen barruan.

Araudia betetzea errazagoa izan dadin, zeregin bakoitzaren ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereiziki, inolaz ere ez da efluente kontrolatu gabetik sortuko, erregai eta produktuak biltegitratzeagatik, makinen mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

– Lurzoruen eta uren babesa: prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezarriko dira obra-fasean istripuzko isurien eragina saihesteko (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriekin kutsatutako lurra kendu eta kudeatzea eta abar).

Egin beharreko jarduketak tamaina txikikoak direla eta, ez da beharrezkotzat jotzen obra-eremuan makinen mantentze-lanak egitea (depositua betetzea, lubrifikatzaileak aldatzea, etab.). Hala ere, hori egitea ezinbestekoa bada, plataforma iragazgaitz baten gainean egingo da, eta plataforma horrek hondakinak biltzeko sistema bat izan beharko du –bereiziki olio erabiliak biltzeko–, urak ez kutsatzeko.

Pilaketa-eremuak, instalazio osagarriak edo makineriaren parkea gainazal iragazgaitzetan kokatuko dira, ibilgutik ahalik eta urrunen.

– Obrengatik eragindako eremuak leheneratzea: proiektua gauzatzearen ondorioz eragindako eremu guztiak leheneratuko dira. Hala badagokio, landareztatze-lanak ahalik eta lasterren egingo dira; horrela, ekidin egingo dira higadura-prozesuak, solidoak drainatze-sarera arrastatzea eta espezie aloktono inbaditzaileen kolonizazioa. Landareztatzeetan erabiltzen diren espezieek inguru horretako landaredi potentzialarekin bat etorri beharko dute.

– Obretako zaratak: Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez, obra-fasean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinen emisio akustikoei buruz indarrean dagoen

araudian ezarritako aginduetara eta, bereziki egokitu beharko dira, hala badagokie, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatua) eta arau osagarrietan ezarritakora.

Obrek iraun bitartean, jardunbide operatibo egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko, bereziki indusketetan, eraispenetan, zamalanetan eta garraio-lanetan, bai eta erabilitako makinen mantentze-lan orokorretan eta zaraten eta bibrazioen sorburuko murrizketan ere.

Eguneko lan-ordutegian egingo dira lanak.

Obrek sei hilabete baino gehiago iraungo dutela aurreikusten bada, inpaktu akustikoaren azterketa egin beharko da, egoki diren zuzenketa-neurriak zehazteko, hala ezarrita baitago urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 35 bis artikuluan. Inpaktu akustikoari buruzko azterlan horretan aztertu beharko da zer onura akustiko lortu nahi den zuzenketa-neurri horien bitartez, eremu akustiko eta eraikin zaurgarrietan zarata-maila murrizteari dagokionez, eta eragindako udalerriri jakinarazi beharko zaio haren edukia.

– Horrek guztiak ez du kentzen Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa betetzea; hau da, obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala emango zaio horren berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari, hark zer neurri hartu behar diren erabaki dezan.

– Espazio libreen tratamendua: hala badagokio, espazio libreak landareztatzeke, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua* argitalpenean jasotakoari jarraituko zaio. Espezie autoktonoak erabiliko dira eta jasangarritasun-irizpideak lehenetsiko dira, espezie inbaditzaileak agertzeko arriskua txikiagoa izan dadin. Landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* edo beste batzuk. Leheneratze-lanetan erabiliko den landare-lurrak flora inbaditzailearen propagulurik ez duela bermatuko da.

– Eraikuntzaren jasangarritasuna: eraikuntza eta eraikingintza jasangarriagoak egiteko behar diren ezaugarriak dagokienez, eraikuntza jasangarriako gidetan jasotako ingurumen-neurri eta -jardunbide egokiak erabiliko dira, lhobek argitaratuak, eraikinen energia-aurrezpena eta energia-efizientzia eta energia berriztagarrien sustapena bultzatzeko. Neurri horiek alderdi hauetan eragin beharko dute, gutxienez:

- Materialak. Lehengai berriztaezin gutxiago kontsumitzea.
- Energia. Energia gutxiago kontsumitzea edota energia gutxiago sortzea iturri berriztaezinen bidez.
- Edateko ura. Edateko ur gutxiago kontsumitzea.
- Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
- Atmosfera. Gas-, hauts-, bero- eta argi-emisioak murriztea.
- Barnealdeko kalitatea. Barnealdeko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.

Bigarrena.— Zehaztea ezen, ingurumen-txosten estrategiko honetan ezarritakoaren arabera, eta betiere ebazpen honetan ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak hartzen badira, bai eta sustatzaileak proposatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira, ez dela aurreikusten Azpeitiko «1. Alde Zaharra» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziak ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik ingurumenean, eta, beraz, ez duela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik behar.

Hirugarrena.— Ebazpen honen edukia Azpeitiko Udalari jakinaraztea.

Laugarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Bosgarrena.— Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 artikulua ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko honek indarraldia galduko du eta berezkoak dituen ondorioak sortzeari utziko dio, behin Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko gehieneko epean Azpeitiko «1. Alde Zaharra» eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia onartzen ez bada. Kasu horretan, berriro hasi beharko da Planaren ingurumen-ebaluazioaren prozedura, ingurumen-organoari indarraldia luzatzeko eskatzen zaionean salbu. Hala gertatuz gero, ingurumen-organoak, hala badagokio, ingurumen-txosten estrategikoaren beste indarraldi bat xedatuko du, erregelamenduz ezarritako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 26a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria falta izanik, eta bat etorritik Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak dioenarekin.

Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordea,
AITOR ALDASORO ITURBE.